



HIZKUNTZA LAGUNTZAILEAK

INFORMAZIO GARRANTZITSUA

**EAE-ra iritsi eta berehala egin
beharreko izapideak.**



Euskal Herrian Bizileku bat aurkitu

EA Era iritsi eta berehala, bizileku bat bilatu egin behar duzu gure artean egongo zaren denborarako

Ostatuari dagokionez, destinoko ikastetxearekin harremanetan jartzea gomendatzen da, ostatua ahalik eta baldintzarik onenetan lortzeko laguntza eman diezaioten. Prentsa espezializatua, bertako egunkariak, iragarki-taulak edo beste edozein antzeko sistema ostatu egokia lortzeko lagungarri izan daiteke. Jarraian, pisu-alokairuan eskaintzako web orri batzuk aurkezten ditugu:

www.idealista.com

www.fotocasa.es

www.enalquiler.com

www.segundamano.es

www.milanuncios.com

www.easypiso.com

Behin etxean kokatuta, Udalera joan zaitezke enpadronatzera. Horri buruzko informazioa bizi deneko Udalaren web gunean izan du eskuragarri Hizkuntza laguntzaileak.

AIZ, AIT edo Europar Batasuneko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiriaren eskabidea.

Atzerritarren identifikazio-zenbakia (AIZ) Espainiara iritsi aurretik eskatu dezake norbere herrialdeko Espainiako kontsuletxean, modu horretan Espainiara iristean eskuartean edukitzeko.

Behin EAera iritsita, dagokizun dokumentazioa eskatu beharko duzu lehenbailehen.

Europako erkidegoz kanpokoak zareten Hizkuntza Laguntzaileei, bisarekin batera AIZ zenbakia esleituko dizuete.

Eskatu, zure nazionalitatearen arabera: **“Atzerritarren identifikazio- txartela (AIT) (Europar Batasunekoak ez diren Laguntzaileak – Europako Erkidegoaz Kanpokoak)”** edo **“Europar Batasuneko herritarra izatearen Erregistro–Ziurtagiria” (Europar Batasunekoak diren Laguntzaileak – Erkidegoak)** ikasle zarenez, esleitutako ikastetxea non dagoen, dagokion.

[Atzerritarren Bulegoan](#)

Atzerritarren Identifikazio-txartela (AIT) eskatu.

Erkidegoz kanpoko Hizkuntza Laguntzaileak

Erkidegoz kanpoko Laguntzaileak – BERRIAK

- **Europako Erkidegoz kanpokoak:** Ikasle-bisa behar da.
- **AIT**(atzerritarrenidentifikazio-txartela) **eskatu**
- **Aurkezteko lekua:** Espainian egoteko eskubidea aitortzen edo baimentzen dion baimena lortutako probintziako Atzerritarren Bulegoan edo polizia-etxean. Dagokion [polizia-etxean](#):
 - ARABA: Oñati kalea - 01013 Vitoria-Gasteiz
 - BIZKAIA: Uhagón kalea, 9 – 48010 Bilbao
 - GIPUZKOA: C/ Urumea Pasealekua, 17- 20014 Donostia
 - GIPUZKOA: Ensanche Plaza, 2 – 20300 Irun
- **Agiri hauek aurkeztu behar dira:**
(Gomendatzen da kontaktatzea dagokion bulegorekin; ordua eskatzea beharrezkoa den ala ez jakiteko eta haiekin ziurtatzeko zein dokumentazio behar duzun)
 - Pasaportea eta kopia
 - Karneteko argazki bat
 - Hizkuntza Laguntzaile izendapena
 - [EX17](#) eskaera-eredua
 - Dagokion [tasa](#) ordaindu izanaren egiaztatgia.

KONTUAN HARTZEKOAK:

Ikastera etorri behar duzue, egonaldi baterako zatozte, ez Espainian bizitzera; beraz, "egonaldi"-baimena izango duzue, ez "bizileku"-baimena.



ERRESUMA BATUKO Hizkuntza Laguntzaileak

Herrialdera 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera iristen diren eta **aurez bertan bizi izan direla egiaztatu ezin duten britainiar nazionalitateko parte-hartzaile** guztiak Atzerritarren Araubide Orokorren mende geratuko dira, bizileku edo egonaldi baimena lortzeari eta izapidetzeari dagokienez, bai eta atzerritarren nortasun-txartelari dagokienez ere.

Atzerritarren Nortasun Txartela (AIT) eskatzeko, [EX-17](#) inprimakia erabili beharko duzu.

Eskabide-ereduetarako sarbidea:: [Eskabide-ereduak](#)

Gogoan izan izapide horiek egitea bizi zaren tokiko gobernuaren ordezkaritzen edo ordezkariordetzen eskumena dela.

Informazio gehiagorako:

[Nazionalitate britainiarra duten Hizkuntza-Laguntzaileentzako Programari buruzko informazioa](#)

[90 egunetik gorako egonaldiak ikasketak, prestakuntza, praktika edo boluntariotzarako](#)

The diagram illustrates the process of applying for a Non-Resident Visa (NIE) and the resulting Tarjeta de Identidad de Extranjero (TIE). On the left, a form titled "NIE" (Número de Identificación de Extranjero) is shown, with a section for "TIPO DE DOCUMENTO DE IDENTIFICACIÓN" (Type of identification document) and "ESTADOS DE RESIDENCIA" (Residence status). The "ESTADOS DE RESIDENCIA" section has a radio button selected for "Estancia por estudios, investigación-formación, intercambio, practicas o voluntariado" (Stay for studies, research-formation, exchange, practices or volunteering). An arrow points from this selected option to the "TARJETA DE IDENTIDAD DE EXTRANJERO (TIE)" (Non-Resident Visa) on the right. The TIE is a card with a photo and personal details, including the "NÚMERO DE IDENTIDAD DE EXTRANJERO (NIE)" (Non-Resident Visa Number).

Europar Batasuneko herritarra izatearen ERREGISTRO ZIURTAGIRIA eskatu

ERKIDEGOKO HIZKUNTZA LAGUNTZAILEAK – BERRIAK

- Europar Batasuneko herrialdeetakoak dira.
- **Europar Batasuneko herritarra izatearen erregistro-ziurtagiria** eskatu.
- **Aurkezteko lekua:** Bizi nahi duen probintziako atzerritarren bulegoa edo dagokion [polizia-etxea](#). Dagokion polizia-etxean:
 - ARABA: C/ Oñate, s/nº - 01013 Vitoria-Gasteiz
 - BIZKAIA: C/ Uhagón, 9 – 48010 Bilbao
 - GIPUZKOA: C/ Urumea Pasealekua, 17- 20014 Donostia
 - GIPUZKOA: Plaza del Ensanche, 2 – 20300 Irún

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

(Gomendatzen da kontaktatzea dagokion bulegorekin; ordua eskatzea beharrezkoa den ala ez jakiteko eta haiekin ziurtatzeko zein dokumentazio behar duzun)

- Pasaporte eta kopia
- Karneteko argazki bat
- **EX18** eskaera-inprimakia.
- Hizkuntza Laguntzaile izendapena
- Dagokion [tasa](#) ordaindu izanaren egiaztatzea.

KONTUAN HARTZEKOAK:

Dokumentu honek (**Europar Batasuneko hiritarren erregistro- ziurtagiria**) 5 urterako balio du; hortaz, herrialdean bizitzen jarraitzeko asmoa izanez gero, ez dago berritu beharrik dokumentua indarrean badago.

“Prorroga de Renovación de Estancia” eskatu

Erkidegoz kanpoko Hizkuntza Laguntzaileak – BERRITZEA

- Erkidegoz kanpoko laguntzaileek **ikasle-bisa** behar dute.
- **AIT** (atzerritarren identifikazio-txartela) **berritzeko eskatu**.
- **Aurkezteko lekua:** edozein erregistro publikotan eta jarduera burutu behar den probintziako atzerritarren bulegoari zuzenduta.

[Tramitazio-bulegoak EAEko atzerritarrentzat](#)

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

(Gomendatzen da kontaktatzea dagokion bulegorekin; ordua eskatzea beharrezkoa den ala ez jakiteko eta haiekin ziurtatzeko zein dokumentazio behar duzun)

- [EXOO](#) inprimakia
- Pasaporte kopia eta originala
- **Hizkuntza Laguntzailearen Izendapen Berria**
- Karneteko argazkia
- Aurreko AIT (originala eta kopia)
- Atzerritarren bulegoaren ebazpena (originala)

KONTUAN HARTZEKOAK:

AIT berritzeko eskaera indarrean egoteari utzi baino 60 egun natural lehenagotik egin daiteke. Indarrean egoteari utzi ondorengo 90 egun naturaletan ere aurkeztu daiteke, horrek ez du esan nahi egun horietan ez denik zehapen-prozedurarik abiatuko. Atzerritarren bulegoak eskaeran bertan agertzen den helbidera bidaliko du eskaeraren ebazpena.

EAEN BANKU-KONTU BAT IREKITZEA

Hizkuntza Laguntzaileentzat ezarritako hileko diru-kopurua 800 eurokoa da. Laguntzaileentzako ordainsari horrek ez dauka inolako kenkaririk.

EAEko kupoko laguntzaileek, bankuko transferentzia bidez dagokien laguntza jaso ahal izateko Espainian **banku-kontu bat ireki beharko dute bere AIZ zenbakiarekin.**

Banku-kontua irekitzeko, pasaporte edota dagokion identifikazio- dokumentuaz gain (AIZ, AIT edo ERREGISTRO-ZIURTAGIRIA), Hizkuntza Laguntzailearen izendapena ere aurkeztu beharko da.

Banku-kontua zabaldu ondoren, «[Hirugarrenei Alta emateko Fitxa](#)» bete beharko da bankuko datuekin. Ezinbestekoa da agiria Hizkuntza Laguntzaileak sinatuta eta bankuak zigilatuta egotea. **Bankuan Titulartasunaren Ziurtagiri eguneratua** ere eskatu behar da, bi dokumentuak kontrastatu ahal izateko.

Bankuan eskatutako **TITULARTASUNAREN ZIURTAGIRIAN**, datu hauek agertu beharko dira:

- ✓ Banku-kontuaren titularraren izena eta abizena
- ✓ Kontuari esleitutako nortasun-agiriaren zenbakia
- ✓ Banku-kontuaren zk.

EAEN BANKU-KONTU BAT IREKITZEA

Behin “Hirugarrenei Alta emateko Fitxa” beteta, bankuak zigilatuta eta identifikazio-sinatuta dagoenean, eskaneatuta bidali behar da dagokion dokumentuaren (AIZ, AIT edo ERREGISTRO-ZIURTAGIRIA) kopia batekin batera eta Euskal Autonomia Erkidegoko programaren arduradunek eskatutako gainerako dokumentazioa, helbide honetara:

hizkuntzalaguntzaile@euskadi.eus

Dokumentazioa zuzen bidali behar da, ahal bada **urriaren 15a baino lehenago**. Edozein zalantza izanik, kontsultatu Programa honetako arduradunekin

Aurreko ikasturtean EAEn egon zineten Hizkuntza Laguntzaileek, ez duzue "Hirugarrenei Alta emateko Fitxa" bidali beharrik, baldin eta bankua edo kontu-zenbakia aldatu ez baduzue. Datuak sail honetako artxiboetako datuekin bat baldin badatoz, ez da beharrezkoa "Hirugarrenei Alta emateko Fitxa" berriro bidaltzea. **Ikasturtea hasi aurretik**, dagokion inprimakia bidali beharko duzue, Titulartasunaren Ziurtagiri eguneratu batekin batera, datuak konprobatzeko. Eta **gogora ezazue kontuak AIZ zenbakiarekin egon behar duela irekita**.

EAEKO KUPOKO LAGUNTZAILEEI ORDAINTEKO MODUA

(Hileroko laguntza EAeko Hezkuntza Saitetik jasotzen duten laguntzaileak)

EAEn, Hizkuntza Laguntzaileei (EAeko Kupoa) egin beharreko ordainketak hilabete bakoitzaren bukaeran egingo zaie, banku-transferentziaren bidez. Dagokion ordainketak, hurrengo hilabetearen lehenengo egunetan egingo dira. Aurkeztu beharreko dokumentuak lehenbailehen tramitatzea aholkatzen da diru-laguntzak lehenbailehen jaso ahal izateko eta lehen ordainketa gehiegi ez atzeratzeko.

GARRANTZITSUA:

Hilabete hauetan zehar gerta daitekeenagatik, komeni da aurretik diru-kopuru bat izatea, batez ere lehen hilabeteko gastuetarako.

Hizkuntza Laguntzaileek kontuan izan behar dutzue ordainketa garaiz jasotzeko dokumentu honetan aipatutako izapideak azkar egin behar dituzuela. Izan ere, ordainketa ez da berehalakoa, eta diru-laguntza jasotzeko beharrezkoa da bankuko datuak zuzen egotea; hau da, banku-kontua behar bezala irekita egotea dagokion AIZ zenbakiarekin



HIZKUNTZA LAGUNTZAILEAK

Zalantzarik izanez gero, jarri gurekin harremanetan
helbide honetan:

hizkuntzalaguntzaile@euskadi.eus

BIENVENIDOS/AS!
ONGI ETORRI!

